

## **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **ELORRIKO HAURRESKOLAK ERAIKINA ERABERRITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA IDAZTEKO, KANPO ALDEAREN ERREFORMA BARNE (PATIOA), E1\_DEF. PROTOTIPOAREN ARABERA**

Baldintza teknikoaren agiri honen xedea da Elorrioko "Haurreskolak" higiezinaren egungo egoera jasoko duten planoak egitea eta eraikina eraberritzeko egikaritze-proiektua idaztea eta prestatzea. Honen barruan, kanpo aldeko patioaren edo jolastokiaren erreforma egitea ere aurreikusi da ADI! Bulegoa arkitektura estudioak prestatutako "Elorrio Herri Ikastetxearen diagnostikoa. Behin-betiko txostena 17/09/2020 // R1" izeneko beharrean agertzen den E1\_DEF prototipoaren arabera, zein bolumenak, banaketa eta sestrak zehazterakoan aurreproiektutzat hartu behar izango den.

Proiektuak aipatutako "E1\_DEF" prototipoak planteatzen dituen eraberritze-obretarako premia-koak diren obrak zehaztu beharko ditu, hau da, higieztina eraberritu ondoren emon behar zaion erabilerrarako bizigarritasun-baldintzak eta konfort-maila onak izan daitezkeen, jolastokiaren eraberritze-lanak ere sartuta. (Aipatutako lanaren kopia erantsita dago).

Obrak errazteko, ahal den beste egikaritze-fase planteatuko dira. Faseak proiektua idazten den bitartean egingo diren bileretan zehaztuko dira eta bai planoetan, bai aurrekontuan bereizi egin beharko dira.

Proiektua idazten den bitartean aplikagarria den indarreko araudi guztia izango da kontuan. Bestalde, proiektua dagokion elkargo ofizialean bisatuta egongo da .

Eskaintzetan honako agiri hauen definizio osoa agertu beharko da:

- ✓ Eraikinaren egungo egoera jasoko duten planoak egitea eta solairu guztiak, altxaerak eta forjatuen solairu guztiak eta bakoitza zehaztu eta kotatuz.

- ✓ Higiezinaren eta jolastokiaren eraberritzearen egikaritze-proiektua.

Egikaritze-proiektuak honako agiri hauek eduki beharko ditu:

- MEMORIA bat, gutxienez honako puntu hauek izango dituenak:
  - Araudi aplikagarria eta justifikazioa berau betetzen denekoa.
  - Hartutako soluzioaren deskribapena eta azalerak, eta obra egiteko aurreikusten diren faseak.
  - Eraikuntza soluzioen deskribapena.
  - Erabilitako materialen sailkapena eta ezaugarriak.
  - Dagokion CTEaren oinarritzko agiriak betetzen deneko justifikazioa (SE, SI, SUA, HR, HS, HE).
- Egitura kalkuluen atal bat.
- BALDINTZA-AGIRI bat.
  - Aplikazio-eremua (xedea, araudia, kontratistaren obligazioak eta abar)
  - Materialez bete behar dituzten baldintzak, obra-unitateek bete behar dituzten baldintzak (egikaritze-baldintzak, akaberak eta azken erremateak, abiarazteko saioak, dokumentazioa, eta abar).
- Segurtasun eta Osasun Azterlana, arriskuak identifikatuta agertuko direnean, ebaluazioa eta arriskuak zuzentzeko proposatzen diren neurriak.
- Kalitate-kontrol programa.
- Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.
- PLANOEN atal bat (egungo egoera eta aurreikusten dena, egitura eta eraikuntza xehetasunak, eta abar.)
- AURREKONTUAren kapitulu bat:
  - Neurketen atal batekin.
  - Prezioen justifikazioarekin (prezioak zatituta).
  - Obraren aurrekontua.

Baldintza-agiri honetan deskribatzen diren beharrak egiteko Udalak bere esku duen dokumentazioa interesdunen eskura jarriko du PDF formatuan, hau da ADI! Arkitektura

Bulegoaren azterlana: "**Elorrio** Herri Ikastetxearen diagnostikoa. Behin-betiko txostena 17/09/2020 // R1".

## **1. PROIEKTUAREN PROGRAMA**

Egingo diren beharrak, gutxienez, honako hauek izango dira:

### **Proiektua idazteko:**

Hasierako bilera eta xehetasunen zehaztapena.

Datuak hartzea eta neurketak egitea.

Proiektuan sartuko direnak:

- Memoria deskribatzailea.
- Kalkuluak justifikatuta.
- Baldintza Teknikoen Agiria.
- Prezio unitarioen koadroa.
- Neurketak eta Aurrekontua (faseka banatuta).
- Planoak, fase ezberdinak zehaztuz, solairuko, sekzioetako, zehaztasuneko eta abarren trazadurekin.
- Segurtasun eta Osasun azterlana.
- Kalitate-kontrol programa.
- Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Udalak begiratzeko eta onesteko aurkeztu egin beharko da.

## **2. PROIEKTUAREN METODOLOGIA**

Jarraipena egiteko, aldiro lan-bilerak egingo dituzte Elorrioko Udalak eta esleipendunak, horietan dagokion dokumentazioa entregatuko da.

### **Datuak eta neurriak hartzea**

Proiektuak egiteko behar den dokumentazio osagarria bilduko da.

### **Egikaritze-proiektua idaztea**

Proiektua idazten den bitartean Elorrioko Udaleko teknikariek bilerak egingo dira proiektuaren garapenari buruzko informazioa emoteko eta fase hau betetzeko sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Onartu ondoren, Udalak eskatutako zuzenketak egingo dira, zuzenketarik egin behar bada, eta eskumena duten erakundeen aurrean egin beharreko izapideak egingo lirateke.

Erredakzio taldeak egiten diren bilera guztien aktak jasoko ditu eta proiektuaren garapenerako garrantzitsuak diren datuak eta gertaerak islatuko dira Agiri balioa izango duten aktetan.

Proiektuaren alderdi guztiak ondo zehaztuta egongo dira, hau da, lizitazioaren deialdia egin ahal izateko behar diren agiri guztiak edukiko ditu, ondoren, jendaurrean jarri ahal izateko eta eraikitze-beharrak eta funtzionamendua bermatzeko.

Orientazio gisa, proiektuak behar izango dituen agiriak, hala nola, edukia zehazten dira:

Memoria.

Kontsiderazio orokorrak deskribatuko dira, hala nola, obrak eta faseak, diseinuaren irizpide orokorrak eta dimentsioa, baita proiektuaren ezaugarri orokorrak eta materialen espezifikazioak.

Proiektuari aplikagarriak diren indarreko araudiak betetzen diren justifikazioa, hala nola Segurtasunarekin eta Osasunarekin lotutakoa.

Kalkuluak.

Atal honetan justifikatuko dira egituraren eta instalazioen kalkuluen bidez hartutako soluzioak.

Planoak

Obra zuzen egiteko beharrezkoak direnak (inplantazioa, xehetasunak, eskemak, ...).

Baldintza Teknikoen Agiria.

Agiri honek bereziak diren preskripzio teknikoak batuko ditu, bai erabiliko diren materialekin lotuta, bai proiektuaren baldintza partikularrekin lotuta.

Adibide modura, agiri honek, gutxienez, honako kapitulu hauek beharko ditu izan:

Gauza orokorrak:

- Agiriaren definizioa eta norainokoa.
- Agiri orokorrak, arau teknikoak eta aplikatzeko gomendioak.
- Materialak, dispositiboak, instalazioak eta honen berezitasunak.
- Betearazpena eta obren kontrola.
- Neurketa, balorazioa eta ordainketa.
- Xedapen orokorrak.

Preskripzio partikularrak materialekin eta obra-unitateekin lotuta:

- Agiriaren definizioa eta norainokoa.
- Unitate bakoitza osatzen duten materialean berezitasun espezifikoak eta preskripzioak.
- Obra-unitateen definizioa.
- Obra-unitateen betearazpena eta kalitate-kontrola, egindako azterlanean Segurtasun eta Osasunarekin lotuta bildutako neurriak aipatuz.
- Obra-unitate bakoitzaren neurketa eta ordaintzeko modua, eta proiektuaren jarduketa zein izango den argi ikusteko izango diren gainerako guztiak.

#### Segurtasun eta Osasun azterlana.

Titulu honen barruan batuko direnak hauek dira:

- Norainokoaren definizioa eta ezarri behar den araudia.
- Instalazioenak diren arriskuen identifikazioa.
- Arriskuen ebaluazioa.
- Hartuko diren neurri prebentiboak zehaztea.
- Segurtasun eta Osasun aurrekontua.
- Arriskuen prebentzioarekin lotuta planoak eta eskemak.

#### Kalitate-kontrol programa.

#### Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

#### Neurketak eta aurrekontuak

Atal honetan honako hauek sartuko dira:

- Neurketak.
- Prezio unitarioen koadroa.

- Aurrekontu partzialak.
- Aurrekontu orokorra.

Neurketetan elementuen xehetasunak eta deskripzioak sartuko dira, ondo neurtuta eta identifikatuta geratuko direnak, aurrekontua egiteko egindako neurketaren eta ordainketa egiteko egingo denaren artean alderik egon ez dadin.

Obraren aurrekontu zuzena egiteko behar diren obra-unitateak sartuko dira, eta hauek deskribatzerakoan argiak, zehatzak eta laburrak izango dira.

### **3. EDIZIOA ETA AURKEZPENA**

Behar guztiak onartu eta berretsita, editatu eta koadernatu egingo dira, eta amaitutzat emongo dira.

Agiriak paperean eta euskarri magnetikoan entregatuko dira:

Papera: Bi ale koadernatuta (dokumentazio grafikoaren planoak tamaina egokian).

Magnetikoa: Ale bat DWG, PDF, DOC, BC3 formatuan.

Entregatuko diren fitxategi grafikoaren ezaugarriak:

Formatua: **LUZAPENA. DWG (AUTOCAD PROGRAMA) eta PDF formatuan.**

Testu-agiriak (memoria, eranskinak eta preskripzio teknikoaren agiria) honako formatuetan aurkeztu beharko dira: **MICROSOFT WORD-EXCELL.**

Prezio-koadroak eta aurrekontua honako formatu honetan aurkeztuko dira: Neurketa-programa eta Aurrekontuak **ARQUÍMEDES (BC3 eta PDF).**

### **1. PROIEKTUAREN PREZIOA**

Zehaztutako beharren prezioa BERROGEI MILA eurokoa (40.000,00 €) izango da, gehi dagokion BEZa.

